

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

1239

AGINDUA, 2022ko martxoaren 3koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena, zeinaren bidez prestakuntza-premiak aztertu eta hautemateko Aholku Batzordeko titular batzuk eta ordezkioak kargutik kendu eta beste batzuk izendatzen baitira.

Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuak beste kudeaketa-eredu bat ezartzen du, eta sistema bakarrean integratzen ditugure lurraldean Enplegurako Lanbide Heziketaren arloan egiten diren jarduera guztiak. Dekretu horren 10. artikulua prestakuntza-premiak aztertu eta hautemateko Aholku Batzordea sortzen du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aholkularitza-organo gisa, eta organismo autonomo horri atxikia.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2019ko uztailaren 30eko Aginduaren bidez, prestakuntza-premiak aztertu eta hautemateko Aholku Batzordearen osaera eta funtzionamendua arautzen dira.

Agindu horren 4. artikulua xedatzen duenez, honako hauek izango dira prestakuntza-premiak aztertu eta hautemateko Aholku Batzordeko kideak: Administrazioaren ordezkari gisa, 10 kide; enpresa-erakunde esanguratsuenen ordezkari gisa, 5 kide; eta erakunde sindikalen ordezkari gisa (erakunde horietako bakoitzak duen ordezkari-kopuruaren arabera), 5 kide.

2019ko uztailaren 30eko Aginduaren 5. artikuluen 1. apartatuan xedatutakoaren arabera, batzorde horretako kideen agintaldia 4 urtekoa izango da, eta agintaldia amaitzean berriz hautatu ahal izango dira. Hala ere, artikuluen 3. apartatuak xedatzen du prestakuntza-premiak aztertu eta hautemateko Aholku Batzordeko kideen agintaldia amaitu ahal izango dela izendatzeko eskumena duen organoak erabakitako errebokazio edo kargu-kentze bat egon den kasuetan, dela kideen ekimenez, dela izendapena proposatu zuen Administrazioak, enpresa-erakundeak edo sindikatu-erakundeak aldezturik eskatuta eta arrazoituta, edota kideak galdu egin duenean kide izendatzeko arrazoia izan zen izaera, kargua dela-eta batzordekide izendatu diren pertsonen kasuan.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2019ko abenduaren 27ko Aginduaren bidez (2020ko urtarrilaren 31ko EHAA, 21. zk.), prestakuntza-premiak aztertu eta hautemateko Aholku Batzordeko kideen hasierako izendapenak egin ziren, gai hori arautzen duen aginduan xedatutakoaren arabera.

XII. legegintzaldiaren hasieraren ondorioz, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren 2021eko otsailaren 24ko Aginduaren bidez, batzorde horretako kide batzuk kargutik kendu eta beste batzuk izendatu ziren.

Ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak izendatutako pertsona batzuk kargutik kendu dira. Hortaz, beharrezkoa da dagozkien kargu-kentzeak eta izendapenak berriro egitea.

Horregatik guztiagatik, emandako ahalmenak erabiliz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari izendatu ziren prestakuntza-premiak aztertzeko eta hautemateko Aholku Batzordeko kide hauek kargutik kentzea:

2022ko martxoaren 16a, asteazkena

Titularrak:

- Mikel Amundarain Leibar jauna.
- Jesus Losada Besteiro jauna.
- Javier Ramos Salazar jauna.

Ordezkoak:

- Javier Zarraonandia Zuloaga jauna.
- Juan Carlos Ibarrola Saenz de Ugarte jauna.

Bigarrena.– Pertsona hauek izendatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren ordezkari gisa, prestakuntza-premiak aztertzeko eta hautemateko Aholku Batzordeko kide izateko geratzen den denborarako:

Titularrak:

- Ana Belén Camacho Vera andrea.
- Juan Carlos Ibarrola Saenz de Ugarte jauna.
- Roberto Villate Ruiz de Gordejuela jauna.

Ordezkoak:

- Mikel Amundarain Leibar jauna.
- Estibaliz Olivares Echevarria andrea.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

AZKEN XEDAPENA

Onartzen denetik aurrera izango ditu ondorioak agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 3a.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.